



DENDA HISTORIKOEI EUSTEN

Kontsumo ohituren aldaketa betean, badira betiko familia negoziolari eutsi gura izan dioten belaunaldi berriak. Maite Mancisidor bosgarren belaunaldia da izen bereko bitxi denda; Txaber Arrillaga familiako laugarren belaunaldia da Silleron.

Durangoko denda historikoetako bi dira eurenak. / 2-3



Andere Larrinaga
EHUko irakasleak
'Nestor Basterretxea.
Artelana eta bizitza'
berbaldia emango
du Durangon / 16

NEVERS
IKASTETXEA
Guraso kooperatiba

Konfiantzan
hazi eta hezi

ATE IREKIAK
Otsailak 1
Zatoz gu ezagutzera!
10:00 - 13:00

Brno Maurizio Zabala Kalea, 6
48200 Durango, Bizkaia
neversikastetxea.com
946 81 09 46
@neversikastetxea

Jone Guenetxea DURANGALDEA

Tokiko merkataritzak sasoi berrietara moldatu behar izan du ezinbestean. Denda berriak zabaldu eta zaharrak itxi. Dinamika horren barruan, badaude salbuespenak; negozioari eutsi gura izan dieten belaunaldi berrien kasua da. Ez dira asko, baina egon badaude. Testuinguru horretan, komertzio berriak zabaldu dituzten gazteek ere pauso bat aurrera eman dute. Dendak Bai elkarteak Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Bulego Teknikoen sarekoa da eta laguntza zerbitzua eskaintzen die, bai Durangon eta baita Durangaldeko gainerako herrietan ere.

Zein da une honetan komertzioaren egoera Durangaldean?

Kaleetan aurkitzen ditugun negozio motak aldatzen dabilta, eta gaur egun zerbitzuetara eta aisialdira bideratuta daude batez ere, komertzioa orain arte ezagutu dugun moduan baino gehiago. Horregaitik, merkataritzan bakarrik aritzen diren establezimenduak apur bat jaitsi dira, eta gora egin dute ostatuek, ostalaritzak eta zerbitzuek. Bestalde, elikadura espezializatua, hala

"Kaleko negozioak zerbitzuetara eta aisialdira bideratuta daude batez ere"

MIREIA JIMENEZ ETA MIREN GARRASTAZU DENDAK BAI

Gabonetako kanpaina pasatuta, komertzioak bete-betean sartu dira beherapenen sasoian. Baina zein da momentu honetan Durangaldeko negozioen egoera?

nola harategiak, arrandegiak, okindegiak eta gozotegiak, eta arropa, oinetako eta etxeko dendak geroago eta gutxiago dira, eta fruta dendak, jatetxeak, ile-apaindegiak eta estetika zentroak igotzen ari dira.

Antzeko egoera bizi dute Durangaldeko beste herrietan?

Egoera antzekoa da Durangon eta Durangaldean, baina Durangon telekomunikazio- edo telefonia-establezimenduen gorakada nabarmentzekoa da.

Merkataritzaren kontzeptua espezializiorantz eta zerbitziaziorantz eboluzionatzen dabilela ikusten dugu; hau da, produktu bereziagoak edo desberdinagoak saltzen dira, eta komertzialaren zerbitzu osagarriak

eskaintzen dira lokaletan: tailerrak, prestakuntza...

Azken urteetan zein bilakaera izan du? Zein komertzio mota itxi eta zabaldu dira?

Azken 15 urteetan, jaitsierarik handienak elikadura- eta etxe-establezimenduenak izan dira, hain zuzen ere merkataritza gune handietan gehien indartu diren sektoreak; beraz, badirudi argi dagoela zein izan den tokiko merkataritzaren arazo nagusia. Orain, Internet merkataritza sektore guztietan eragiten dabil, eta arropa eta elektronika dendak dabilta igartzen gehien.

Sareko erosketek zein eragin izan dute komertzioan?

Internet bidezko erosketen sektorerik kaltetuenak moda eta elektronika dira.

Komertzioek jakin dute berrasmatzen?

Negozio bat kudeatzeak egunik egun eraldatzen ibiltzea eskatzen du, eta bakoitzak bere erara egiten du, ez zaio digitalizazioari bakarrik garrantzia eman behar. Kontzeptu horren barruan ere, egokitzeko modua desberdina izan daiteke. Gatz da to-



Maite Mancisidorrek 25 urte daramatza Andra Mari ondoko dendan lanean.

"Beste kontsumo mota bat bere lekua egiten dabil"

MAITE MANCISIDOR SALABERRIA BITXIGILEA

1866. urtetik Mancisidor familiak bitxi denda dauka Durangon. Maite Mancisidor (Durango, 1976) familian ardura hori hartu duen azken belaunaldikoa da

Ekaitz Herrera DURANGO

Zelan ikasten da ofizioa?

Lehen, seme-alabek gurasoengandik ikasten zuten; gaur egun badaude eskolak. Hala ere, eginez ikasten diren lanak dira. Ni, tailerrean baino gehiago, negozioa kudeatzen aritzen naiz.

Zelan hartu zenuen negozioa hartzeko erabakia?

Aita itsu geratzen hasi zen. Orduan, baten bat hartzeko momentua heldu zen, berak ez zuelako bere burua horretarako gauza ikusten. Nire ahizpa ikasten zebilen eta niri egokitu zitzaidan laguntzera etortzea. Bosgarren belaunaldia naiz.

Zuretzat zer da Mancisidor?

Gauza asko. Belaunaldirik belaunaldi jaso dudana asko hemen dago, ona eta txarra. Presioa batzuetan, baina baita aberastasun handia ere ikasketa eta esperientzia aldetik. Bestalde, asko lotzen zaitu Durangora eta herriaren historiara. Zornotzan hazitakoa izanda, horixe nabarmenduko nuke. 25 urte daramatzat jendaurrean lan egiten eta jende asko ezagutzen dut. Ni ere askok ezagu-

tzen naute. Hor sortzen den sarea oso polita da niretzat.

Zelan aldatu da kontsumoa?

Kontsumoa eta gure lan egiteko modua aldatu egin dira. Lehen, ez geneukan bisuteria edo zilarrik. Urrezko bitxiak edo erlojuak zeuden. Beraz, eskaintza ere aldatu egin da. Hala ere, berriro bueltatzen ari da iraungo duen pieza bat erosi gura duen jendea. Kontsumismoa hortxe dago, baina beste kontsumo mota bat bere lekua egiten dabil. Mutur batetik bestera pasatu ginen, eta orain oreka bat igartzen dugu.

Gabonetako kanpaina pasatuta, orain zein da joera?

Orain urte batzuk, urre zuria ipini zen modan, eta orain gorria batez ere. Perlak ere indarragaz sartu dira berriro, urte batzuetan baxuago egon eta gero. Era berean, azken urteetan oso pieza txikiak ziren eta orain handiagoak aukeratzen dira.

Mancisidorrek izango du belaunaldi berririk?

Nire umeak txikiak dira aukeratzeko. Baina hala bada, eurek aukeratu dutelako izango da, ez presioagaitik. Hori argi dut.

kiko saltoki batek web orri edo plataforma baten bitartez saltzea, eta hori behin eta berriro esaten zen orain urte batzuk. Egiaztatuta dago, bakoitzaren ezaugarrien arabera, batzuei hobeto funtzionatzen diotela sare sozialetan egoteak edo WhatsApp bidez saltzeak, inbertsio eta konplikazio gehiagorik barik. Ez dago denda guztientzako "errezeta" bakarra. Hala ere, horrek salmenta fisikoaren osagarria izan behar du, salmenta puntuaren garrantzia ahaztu barik. Era berean, elkarre lez, kontsumitzaileari balio erantsia ematen dioten tresnak establezimenduen eskura ipintzeko lan egiten dugu: etxerik etxeko banaketa zerbitzua, edozein ordutan eskaerak jasotzeko leihatilak, sare sozialetako edo AA prestakuntza, Durango Txartela fidelizazio tresna...

Tokiko komertzioek zein balio erantsi eskaintzen dute?

Tokiko saltokiek hurbiltasuna, tratua pertsonalizatua eta zerbitzua eskaintzen dituzte, eta baita prezio ona ere kasu askotan. Gainera, Durangok kalitate handiko merkataritza izan du



Mireia Jimenez eta Miren Garrastazu. DENDAK BAI

beti, eta negozio kopuruagaitik beti aurkitu dezakezu bilatzen duzuna. Herri lez, hemen bigarren saltoki bat zabaltzea erabakitzen duten negozioentzat erakargarria da. Ostalaritzari dagokionez, eskaintza geroago eta handiagoa da: hanburgesak,

sushiak, sandwich korearrak, mexikarrak, gosariak eta brunchak..., eta horiek guztiak lokaletik kanpora eramateko egokituta daude. Gainera, geroago eta lokal gehiago dago eramateko janaria saltzeko barrik. Eskaintza tradizionala-

goa ahaztu barik: eguneko menuak, plater konbinatuak eta ogitarakoak.

Zelan joan da Gabonetako kanpaina?

Gabonetako kanpaina ontzat jotzen dugu. Merkatariek pozik daude Gabonetako kanpainagaz, kanpaina hori aspaldi bezain

garrantzitsua ez bada ere. Salmentak gehiago banatzen dira urtean zehar. Eta 2024ko balantzeari dagokionez, sektore mota bakoitzaren arabera, baina orokorrean urte egonkorra izan da salmentei dagokionez, hainbat urte igoera eta jaitiera askokoa izan ondoren, egoera desberdinek eraginda.

Badago komertzioetan belaunaldi aldaketa bat? Zeintzuk dira erronkak?

Erronka nagusia lehenengo hiru urteei zabalik eustea da, horiek direlako negozioa errentagarria den ala ez jakiteko gakoa. Eta, udalerrri lez, negozio errentagarriak ez ixtea eta belaunaldi berriek horiek hartzea da erronka. Merkatariek profil trebatuagoa eta digitalagoa dute, eta horrek negozioaren kudeaketa errazten du, baita ingurune digitalarena eta sare sozialesena ere. Hala ere, hori merkatariairen profilararen arabera da, eta ezin da orokortu, baina denda fisiko bat zabaltzen denean salmenta fisikoak du garrantzia, eta sare sozialetan presentzia izatea gomendatzen bada ere, salmenta puntua ez da alde batera utzi behar.

"Denda familiakoa izateak badu zeozer erakargarria"

TXABER ARRILLAGA MUNITXA OINETAKO SALTZAILEA

Mantenu gaietako langile izateari utzi eta zapatagintza ikasketak egin zituen Arrillagak. Orain urte batzuk bere familiako Sillero zapata dendaren ardura hartu zuen

Ekaitz Herrera DURANGO

Familiako laugarren belaunaldia zara dendan. Zein bilakaera izan duzue historian zehar familiako belaunaldien artean?

Gure amama, aitaren ama, umezurtz geratu zen lau urte gaz, eta Silleroko dendarietako familian hartu zuten, zaintzan. Horrenbestez, familia hura izan zen lehenengo belaunaldia. Gero, amama ezkondu zenean, bigarren belaunaldia etorri zen. Handik gutxira izekok hartu zuen dendaren ardura, eta nik, azkenik, laugarren belaunaldiagaz.

Sillero beti egon da leku honetan?

Ez. Kanpantorrosteta kalean 25 urte daramatzagu. Lehenago, denda Andra Maria kalean



Txaber Arrillaga Sillero dendako arduraduna da.

egon zen, egungo Errekamendi eta Zubizarreta dendan inguru horretan. Etxe hura aita-amamena zen, baina suts arazoak zirela-eta eraikina bota behar izan zuten. Izekok hona lekualdatu zuen denda. **Zerk bultzatu zintuen dendaren ardura hartzera?**

Batxilergo teknologikoa ikasi nuen eta mantentze-lanetan hasi nintzen enpresetan. Baina, 2008ko krisialdiagaz, beharrik barik geratu nintzen. Zer egin ez nekiela, aitak komentatu zidan ea zergaitik ez nuen zapatagintza ikasten, familian negozio hau genuela eta. Ideia ona iruditu zitzaidan. Beraz, uda batean Valentziako Elda hirira joan nintzen ikasketak egitera, zapatagintzaren hiri-burura. Handik gutxira, dendatxo bat zabaltu nuen Eloreko Erreka kalean. Bost urte egin nituen han, harik eta izekok Durangoko Sillero erretiroa hartu eta dendaren ardura nik hartzea proposatu zidan arte.

Erabakiagaz damutu zara?

Ez, ez. Lan guztietan daude kezkek eta ardurak, hemen

ere bai. Edozelan ere, denda zure familiakoa izateak badu zeozer erakargarria. Oso pozik nago erabakiagaz.

Tradizio handiko familia-negozioa izateak eragiten dizu presiorik?

Dendaren izena mantentzea eta Internet garai hauetan negozioari eustea eguneroko erronka da, eta, horrenbestez, beti dago prezio moduko bat. Ez asko, baina beti duzu buruan. Zer egin horri aurre egiteko? Oso produktu onak ekarri, material onekoak, eta oso prezio onean.

Izan ere, zelan eragin dizuete kontsumo ohitura berriek? Online salmentek gora egiten jarraitzen dute.

Gustuko duguna segituan gura izaten dugu, eta bide hori denok hartzen badugu, herriak husten amaituko dugu. Hemen, oraingoz, bagabiltza eusten. Zazpi urte daramatzat hemen, eta, zorionez, diru kopuruak berdintsuak dira urtetik urtera. Neu ere sartzen naiz Interneten oinetakoen prezioak ikusteko, eta egia esango dizut: oinetako berdin-berdinak merkeago topatuko dituzu hemen.

"Gaztetxearen aldeko borroka ez da eten"

KATTALIN ZUGAZAGOITIA ETA ANDER SARRIUGARTE 'KALETIK GAZTETXERA'

Aste batzuk pasatu dira Durangoko hainbat gaztek postetxe zaharra okupatu eta Ertzaintzak eraikina hutsarazi zuenetik. Gazteek ez dute etsi: gaztetxea gura dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Kaletik Gaztetxera dinamikak postetxe zaharra okupatu zuen abenduaren 6an. Handik egun batzuetara udalak salaketa ipini zuen. Elkarretaratze, karga eta tentsio artean gazteek eraikinetik irten behar izan zuten. Alabaina, asanbladako kideek ez dute etsi: gaztetxea lortzeko bideari utsiko diote. Oraingoan, kideak saretzen dabilta, eta urte osoari begirako egitarauak antolatzen.

Zein da abenduko gertakariez egiten duzuen interpretazioa?

Ander Sarriugarte: Aste nahasiak izan ziren eta denbora behar izan dugu dena barneratzeko. Batetik, asanbladak izandako indarra azpimarratuko nuke, ez genekien-eta hain babes handia geneukanik. Irtenarazte ilegal hura bizi eta gero, jendea batzeko gaitasun handia erakutsi genuen. Eta eskertzekoa ere bada inguruko Gazte Asanbladak emandako babesa.



Zugazagoitia eta Sarriugarte, Durangoko 'Kaletik Gaztetxera' dinamikako kideak.

Kattalin Zugazagoitia: Txanponaren beste aldean udalaren erantzuna dago. Okupazioa izan baino lehenago, Durangok gaztetxea urgentziaz behar zuela adierazi genien udal arduraduneri. Proposamen bat egin ziguten, baina proposamen hark ez zuen

batere zerikusirik guk gaztetxe lez ulertzen dugunagaz. Euren jabetzakoa ez zen leku bat eskaini ziguten, beharbada urte batzuk barru erabili ahal izango litzatekeena, baina ez zegoen ezelako bermerik. Gainera, proposamen hark ez zion urgentziari erantzun-

ten. Eta gerora, eraikina utzarazi eta gero, isiltasuna baino ez dugu jaso. Esanguratsua da ere alderdi politiko bakar batek ere ez duela gaiari buruz galdetu azkeneko osoko bilkuran.

A.S.: Beste behin ere, instituzioek argi erakutsi dute euren eskumetik kanpoko antolamenduei, jendea batzeko gai diren eta proposamen alternatiboak egiteko gai diren proiektuei, euren tresnak erabilia erantzuten dietela. Durangon urteetan ez dugu halako kargarik bizi izan.

Badago Gaztetxeko kideen kontrako auzibiderik indarrean?

A.S.: Bai. Guk dakigula dinamikako lau kidek jaso dute usurpazio delituagaitiko salaketa jakinarazpena. Hala ere, ikerketapean dauden gazteak gehiago dira, eta, beraz, posible da kopuru hori handiagoa izatea. Jakinarazpenetarikoz batzuk oraindino eraikin barruan geundela jaso genituen; beste batzuk eraikina utzarazi eta gerora. Kalaan identifikatutako kideak daude horien artean. **Une honetan zelakoak dira udalagaz dituzuen hartu-emanak?**

K.Z.: Ez daukagu apenas hartu-emanik. Durangoko Azokako asteburuan alkateagaz kontaktuan egon ginen, eta asteburu hura lasai igaro genezakeela adierazi zigun. Baina domeka hartan bertan eten ziren hartu-emanak, Azoka amaierako domekan. Baldintza haietan ez zuela negoziaketekin jarraituko esan zigun udalak.

A.S.: Kargen egunean udal arduradunekin berba egin genuen, baina entzungor egin ziguten. Gerora, eraikina utzarazi eta aste bitara jakinarazpen bat helarazi ziguten. Elkarregaz batzartu gineneko proposamen bera ipini ziguten mahai gainean, Gaztetxearen eredu argitzen ez duen eta urgentziarik adierazten ez duen hori. Proposamenari erantzun genion eta orain haien erantzunaren zain gaude.

Zeintzuk dira etorkizunera begira dituzuen planak?

K.Z.: Gure lehentasuna salaketak atzera botatzea lortzea da. Alde horretatik, ahalik eta gehien presionatu gura dugu. Bestalde, kaleak hartzen jarraituko dugu, eta ahalik eta egitaraurik gehien antolatzen. Asanblada indartsu dago, sendotzen dabil.

A.S.: Hartu-emanak hasi ditugu hainbat elkartegaz, eta hasi gara horien fruituak ikusten. Ikasturte honi dagokionez, egitarau zabal prestatzen gabiltza. Gure proiektuaren berri han-hemenka ematen eta hura aberasten jarraituko dugu. Hurrengo pausoak hausnartu gura ditugu, eta espazioak aztertu. Izan ere, Gaztetxearen aldeko borroka ez da eten.

"GURE KONTRAKO SALAKETAK KENTZEA ETA KALEAK HARTZEN JARRAITZEA DUGU LEHENTASUN"

Telefonoen erabilera arautzeko oinarriak Durangoko eskoletan

Herriko ikastetxeak oinarri bateratu bat sortzen dabilta telefonoek umeei ekar diezaiaketen kaltea saihesteko

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udal Eskola Kontseilua, hau da, udala eta herriko ikastetxeak, oinarri bateratu bat eratzen dabilta ikasturte honetan zehar norabide berean arraun egiteko. Ikasleen ongizatea zaintzea izango dute helburu, eta tratatu ona sustatuko dute horretarako, baita osasun fisikoa eta emozionala ere. Hori guzti hori dela eta, ziberjazarpenaren prebentzioan ipiniko dute arreta. Era berean, udal iturriek jakinarazi dutenez, ikastetxeak oinarri bateratu bat lantzen dabilta

zentroetan telefono mugikorren erabilera arautzeko. Aipaturikoez gainera, bizikidetzan eta kideztasun sentimenduan ere eragingo dute: ikasleen arteko integrazioa sustatze aldera, udalaren harrera plana berrikusteko eta bateratzeko lan egingo dute. Bestalde, osasuna zaintzea, hezkuntza hobetzea eta ikasleak euskaraz zein euskal kulturaz integratzea ere hartu dute helburutzat.

Elkarlana

Durangoko Udalak eta udalerriko ikastetxeek 2021-2022



Durangoko Udal Eskola Kontseiluko kideak. DURANGOKO UDALA

ikasturtean sortu zuten Eskola Kontseilua. Antolakundean, udalerriko ikastetxeetako ordezkariak, gurasoen elkartetako kideak eta udal ordezkari politikoak daude. Alde guztiak hilerok batzen dira, talde lana

sustatu eta udalerriko hezkuntza errealitateari buruzko diagnostiko partekatua egiteko. Udal Eskola Kontseiluko kide guztiek agertu dute antolakunde horretan jarraitzeko konpromisoa.

Landako Guneko izotz pistak 7.945 erabiltzaile izan ditu

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak Gabonetako ekitaldien balantzea egin du. Abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra bitarteko hogeita lau ekitaldietan "parte hartze handia" egon dela eta herritarrek "aktiboki" parte hartu dutela adierazi dute. Zenbakiei dagokionez, honako kopuru hauek eman dituzte: Gabonetako Haur Parkeak 7.000 erabiltzaile inguru izan ditu eta Olentzeroren eta Mari Domingiren etorreran 2.000 lagun inguru batu ziren. Izotz pistak ia 8.000 bisitari izan ditu. Azkenik, Gabonetako ekitaldirik jendetsuena Errege Magoen kabalkada izan dela esan du udalak.

CCOO: "Bidaltze bidegabea izan zela onartu dute"

CCOOko ordezkariaren kaleratzea "bidegabea" izan zela "onartu" du Durangoko Fumbarri enpresak, sindikatuak jakinarazi duenez. Eta gaineratu du enpresak "erretiratu" egin behar izan duela langilearen kontrako diziplinazko kaleratzea

E.H. DURANGO

Durangoko Fumbarri enpresak CCOO sindikatuko ordezkaria zen langile bat kaleratu zuen iazko apirilean. Harrezkero, hainbat mobilizazio egin dute, langileari babesa adierazteko eta enpresan zuen lanpostua berreskuratu dezan eskatzeko. Joan zen astean CCOO sindikatuak jakinarazi zuenez, kaleratze hura "bidegabea" izan zela onartu du enpresak. Hori baino gehiago; sindikatuak nabarmendu du Fumbarrik "erretiratu" egin behar izan duela ordezkariaren kontra ezarritako diziplinazko kaleratzea.

Auzi judiziala

Erabakia ordezkari sindikalaren eta Fumbarri enpresaren arteko auzi judizialaren ondoren heldu da, urtarrilaren 7ko epaiketa izan eta egun bira: "Fumbarri ez zaio beste erremediorik geratu kaleratzea bidegabea izan zela onartzea baino. Gainera, diziplinazko kaleratzea



CCOOk hainbat mobilizaziotara deitu du.

erretiratu behar izan du", esan du CCOOk.

Edozelan ere, enpresak ez du langilea berriro ere bere lanpostura bueltatu. "Oso hile gorrak pasatu ditugu justizia egiteko ahalegintzen, baina heldu da lan onaren ondorengo

saria", azaldu dute sindikatuko ordezkariak prentsa oharrean. "Injustiziaren aurka borrokatzea zein garrantzitsua den argi utzi dugu, langile ordezkari guztien indarragaz edozer lortzeko gai garela argi utzita", gaineratu dute.

Horma irudi berria Zaldibarren, migratzaileen eskubideak aldarri

Zaldibarko Jendeak taldeko kideek margotu dute murala, Gaëlle Rocher Fernández artistaren gidaritzapean



Horma irudi berria Olazarko frontoiaren kanpoaldean dago, dorretxera begira.

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Jendeak taldeak horma irudi bat egin du Olazarko frontoiaren kanpoko hormetarik batean. Margotze lanak abenduaren 21ean egin zituzten, Migratzaileen Nazioarteko Eguna harira. "Irudian txori bi agertzen dira, hau da, animalia migratzaile bi; erpeak barik atzamarra dituzte, eta oskol itxurako etxea garraiatzen dute. Migratzaileen errealitateagaz lotzen den irudia da", azaldu du Roberto Macho Zaldibarko Jendeak elkartearen kidea. Era berean, Joseba Sarrionandiaren poema bat idatzi dute, eta gaztelaniara, arabierara eta frantsesera itzuli. Jatorrizko irudia migratzaile batena da. Dozena bat lagunek parte hartu zuten artelana egiten, Gaëlle Rocher Fernández artistaren gidaritzapean.



GARAICO UDALA

Desfibriladore berria Garain

2024ko amaieran, Garaiko Udalak desfibriladorea ipini zuen udaletxearen azpiko atartearen; orain, ikastaro bat antolatu dute gailua era egokian erabiltzen ikasteko. Prestakuntza saioa urtarrilaren 20an egingo dute, Kultur Etxean, 17:00etatik 19:00etara. Ikastarorako izena udaletxean eman behar da; herritarrek lehenatasuna izango dute parte hartzeko.

Zatoz eta ezagutu Andramari Zomotzako ikastola

URRUN IRISTEKO, GERTU.

- 0tik 18 urtera arte.
- Bisita pertsonalizatuak.
- 2025/26 matrikulazioa: otsailaren 3tik 14ra.

ANDRAMARI
ZOMOTZAKO IKASTOLA

Larrea auzoa z/g 48340 Zornotza.
94 673 29 50 - zornotza@ikastola.eus
www.andramarizornotzakolikastola.eus

Hilaren 25ean hasiko da 'Zapatuetan Berriz'

'Zapatuetan Berriz' ekimena urtarrilaren 25ean hasiko da; izena emateko epea urtarrilaren 20ra arte izango da eta txanda bakoitzean 70 plaza egongo dira, gehienez; zalantzak euskara@berriz.eus helbide elektronikoa argituko dituzte

A. M. BERRIZ

Haur eta gazteek aisialdian euskaraz gozatzeko 'Zapatuetan Berriz' ekimena urtarrilaren 25ean hasiko da; Berrizko Udalak antolatzen du, Haur Hezkuntzako 4. mailatik Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat. Saiok zapatuetan egingo dituzte, urtarrilaren 25ean hasita, 16:00etatik 19:30era bitartean, eskolako patio estalian. "Aisialdian lagunekin euskara modu ludiko eta dibertigarrian sustatzea da gure honen helburu nagusia", esan dute. Zalantzak argitzeko, euskara@berriz.eus helbide elektronikora idatzi daitekeela azaldu du udalak ohar berean.



'Zapatuetan Berriz' programako aurreko edizio bateko argazkia. BERRIZKO UDALA

Argiteria berrizteko lanak

Bestalde, udalak jakinarazi du Agirre Lehendakariaren pasealekuko eta Berrizburuko sarbide eta inguruetako argiztapen sistemak berrizteko obrak lizitatu dituela. Lanen aurrekontua 97.500 euro ingurukoa

da, eta lanek hile bi iraungo dutela aurreikusten du udalak. Eremita biek LED teknologia-dun ekipoak ipiniko dituzte, gune horietako argiztapen mailak hobetu eta eremu segurua goak bilakatzeko. "Neurriak energia asko aurrezten lagun-

duko du; Agirre Lehendakariaren pasealekuko argiteriak 40 urte baino gehiago ditu, eta Berrizburukoak 20 baino gehiago", gaineratu dute; aurrekontuaren ia erdia, 41.800 euro inguru, Bizkaiko Foru Aldundiak ordainduko du.

Asteon ekin diote Zornotzako zineklubaren ziklo berriari

Zornotzako zineklubeko emanaldiak martitzenetan izango dira, 19:00etan, Zornotza aretoan, martxora arte



Zinekluba.

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako zineklubak ziklo berri bati ekin zion martitzenetan. Oraingo hau bederatzi pelikulak osatzen dute eta lehenengoa Lila Avilés zuzendari mexikarraren *Tótem* filma izan zen. Pelikulen ondoren, solasaldi zabala egingo dute, pelikulen istorioari, testuinguruari eta xehetasun teknikoari buruz gehiago jakiteko. Gariza Films ekoiztetxeak aukeraturiko filmak proiektatuko dituzte. Emango dituzten filmen artean, *Por donde pasa el silencio*, *Un sol radiant* eta *La quimera* nabarmendu dituzte. "Pelikulak ikusteaz harago, ikusleek zinema barrutik bizitzea eta ulertzea da formatu berri honen helburua", azaldu zuten Zornotzako Udaletik. Sarrerak 4,80 euroko prezioan salduko dituzte.



Artxiboko irudia.

San Antonio jaietako bigarren astebururako prest Berrizen

Jaiak eguenean hasi ziren ofizialki, kalejira bereziagaz; urtarrilaren 20an nekazaritza-olinpiadak egingo dituzte

A. M. BERRIZ

Eguenean Donien Atxa jaso eta gero hasi zituzten San Antonio jaiak. Gaur, hilak 17, 17:30ean, Amaraun mendi taldeak eta Berrizko Udalak elkarlanean sustatutako II. Umeentzako Mendi Erronkaren sari bana-keta egingo dute; 19:00etan sagardo festa eta odoloste dastatzea egingo dituzte. Domekan XLIII. Barazki eta Fruitu Erakusketa egingo dute, 12:00etan hasita, eta eguerdian Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeek dantzan egingo dute Olakueta plazan; asteburua borobiltzeko,

Ekhi Lambertek kontzertua emango du Antonio Deunaren baselizan.

Jaietako ekitaldirik arrakastatsuenetariko bat nekazaritza-olinpiadak dira. Astelehenean egingo dituzte, hilak 20. Erronka honetan 16 urtetik gorako herritarrek parte hartu dezakete. Guztira, 600 euro banatuko dituzte hiru saritan; irabazleek 250 euro poltsikortuko dituzte, eta bigarrenek eta hirugarrenek, 200 euro eta 150 euro hurrenez hurren. 19:00etan hasiko da Berrizko frontoia jendez betetzen duen erronka.



Urtarrilaren 12an egin zuten ekitaldia. ELGETAKO SORTU

Intxortara igoera, beste urte batez

A. M. ELORRIO

Ekitaldia egin zuten Intxortan, urtarrilaren 12an, urteroko tradizioari eutsiz. Antolatzaileen esanetan, 90 bat lagun igo ziren Intxortara, urtero legez; Eloorriotik, Arrasatetik, Bergararik

eta Elgetatik joan ziren. Hotz handia egiten zuenez, bertaratu zirenen artean salda banatu zuten. Ondoren, "egungo egoeraren analisisa" egin zuten, eta amaitzeko, talde argazkia atera zuten.

GREMIOEN GIDA

Zurgintza

leike Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf: 94 681 72 29

Zurgintza

ATERPE ARROTZALDIA
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asler Abendibar
635 74 84 65
www.carpinteriaaterpe.com

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Elektrizitatea

ELECTRICIDAD JON




622 684 284
electricidadjon@outlook.es

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberitzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Euskaraldiko hamaikakoa aurkeztu dute Abadiñon

Abadiñoko Euskaraldiko kideek batzar zabal bi egingo dituzte hemendik eta maiatzera bitartekoak prestatzeko. Lehenengo jardunaldia Txanporta Kultur Etxean egingo dute, urtarrilaren 20an, 18:00etan. Bigarrena Errotan, urtarrilaren 21ean, 18:00etan. Herritarrei parte hartzera dei egin diete

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Euskaraldiak bere hamaikakoa aurkeztu zuen domekan, Txanporta plazan. Hemendik eta Euskaraldia izan arte, hamaika herritar horiek abadiñarrak hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa erraldoira gerturatzeaz arduratuko dira. "Udalerriko hainbat herritar esanguratsu batu dugu hamaikakora. Arlo ugariatako kideak dira, modu batera edo bestera euskaragaz lotura dutenak", azaldu zuen Amaia Huarte Abadiñoko Euskaraldiko kideak.

Bertako kideek helburu argia markatu dute: udalerrian euskararen erabilera sustatzea, lehenengo berba euskara izatea bermatzea eta euskara ez dakitena hizkuntzara gerturatzea. "Konplexuak albo batera utzi eta euskara hiltzatu behar dugu", nabarmendu zuen Huartek. Honako beste asmo hauek ere aipatu zituzten egitasmoaren



Abadiñoko hamaikakoaren aurkezpen ekitaldia.

bultzatzaileek: "Euskaraldia urte birik behin egiten gabiltza, baina hori tanta txiki bat da ozeanoan; itsasoa tantarik tanta betetzeko, ezinbestekoa dugu euskara egunero-egunero era-

biltzea, urte birik behin barik", adierazi zuten.

Abadiñoko Euskaraldiko kideek batzar zabal bi egingo dituzte hemendik eta maiatzera bitartekoak prestatzeko. Lehe-

Abadiñoko Euskaraldiko hamaikakoa

- Amaia Munitxa
- Edu Mendizabal
- Mariaje Sarrionandia
- Ana Agirre
- Binta Badiane
- Alex Ferrero 'Ferre'
- Aintzane Mendiola
- Ibon Lasuen
- Ekaitz Herrera
- Ainhoa Gangoitia
- Zigor Iturrieta

nengo jardunaldia Txanporta Kultur Etxean egingo dute, urtarrilaren 20an, 18:00etan. Bigarrena Errota Kultur Etxean izango da, urtarrilaren 21ean, 18:00etan.

Udala eta ETS elkarlanean Abadiñon hainbat proiektu

Abadiñoko Udalak lau proiektu ditu esku artean ETSgaz; datozen urteetan hauek egin ahal izatea da helburua

M.Z. ABADIÑO

Aste honetan, Mikel Urrutia Abadiñoko alkateak eta Jose Luis Navarro Hirigintza arloko zinegotziak prentsurrekoa eman dute Euskal Trenbide Sareagaz dituzten elkarrizketen berri emateko. "Abadiñoko Udala lanean dabil auzo guztietako irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko, eta bide horretan ETSgaz hartu-emanetan gaude, egitasmo batzuk administrazio horren eskumenekoak dira eta", azaldu du Mikel Urrutia alkateak Udaleko kideek lau proiektu

nabarmendu zituzten prentsurrekoan. Lehenengo proiektua, Traña-Matienatik Lebariora doan eremua irisgarriagoa egitea, espaloia eginez. Bigarren proposamena, Lebarioko kotxetegiaren dagoen tren geralekua Lebarion lan egiten duten pertsona guztiei zabaltzea ordu jakin batzuetan. "Horrek, baina, pasagune bat egitea ekarriko luke, momentu honetan irteera kotxetegiara baino ez dago eta", azaldu zuen Navarrok. Hirugarrena, Traña-Matienako geralekuaren ondoan disua-



Jose Luis Navarro eta Mikel Urrutia.

sio-aparkaleku bat egitea. Eta azkena, Traña-Matienatik Durangora doan trenbide zaharra bidegorri sarean txertatzea.

"Bileretan sintonia ona egon da alde bien artean eta ETS prest

agertu da mahai gainean ipini genituen proiektu eta proposamenei heltzeko. Aurrekontuak ikusi beharko dira, eta horren arabera lehentasunak ezarri", gaineratu zuen Navarrok.

Mallabiko Udalak bandalismo ekintzak salatu ditu

Kaltetutako instalazioa urtarril erdirako martxan egotea aurreikusita zegoen. Atzeratu egin beharko dute

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak salatu du Zubitegi Kirol parkean bandalismo ekintzak egon direla azken asteotan. Sare sozialetan jakinarazi dutenez, padel pistan instalatutako sarbide kontroleko sistema apurtu dute, horma irakurgailua desagertu egin da eta sarbideko atea, euskarria eta kableak kaltetu dituzte.

Bestalde, instalazio hauek urtarril erdirako martxan izatea aurreikusten zutela adierazi zuten, baina atzeratu egin beharko dutela, kalte guztiak konpondu arte.



Sarraila apurtuta. ©MALLABIKOUDALA

Hamabostero biodantza ikastaroa egingo dute Mallabian

M.Z. MALLABIA

Martitzen honetan, biodantza ikastaroa hasi dute Mallabian. Tartekari sareak eta Nahikari emakumeen elkarteak antolatu dute tailerra, udalaren laguntzagaz, eta hamabostero izango da, Kontzejuzarren. Antolatzaileek azaldu dutenez, tailerrean parte hartzeko ezinbestekoa izango da izena ematea (676 271 507).

TARTEKARI SAREAK ETA NAHIKARI MALLABIKO EMAKUME TALDEAK ANTOLATU DUTE TAILERRA

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA



ESKAINZA

0 urtetik 18 urtera
bitarteko hezkuntza
eskaintza.



HELBURUAK

Ikasle euskaldun,
kritiko eta
eleanitzak.



ELIKADURA

Jantoki
Eko-Arduratsuaren
ziurtagiria.
Bertokoa, ekologikoa
eta sasoikoa.



ATEAK ZABALIK JARDUNALDIA

Urtarrilak 25ean 11:00etan

MATRIKULAZIO EPEA
Otsailaren 3tik 14ra






anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

URTARRILEKO ZOZKETAK



Euskaraldiko materiala. Kamiseta beltza (haurrak) eta Elkar mugituz egingo dugu lelodun poltsa.



Basa Take Away jatetxean gastatzeko 25 euroko bonua.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Lehenengo liburua Durangoko Azokako Saguganbaran aurkeztu zuten. BERBARO

'Txalopin txalo' kantu liburuak Mañarian izan du lehen geratokia

Umeen artean euskararen transmisioa sustatzeko proiektua herririk herri aurkeztuko dute datozen asteetan

J.D. MAÑARIA

Mankomunitateak proiektu berri bat sortu du umeen artean euskararen transmisioa sustatzeko: *Txalopin Txalo* kantu liburua. Argitalpenean, Durangaldeko adineko hamar herritarren ahozko ondarea jaso dute.

Kantu liburua herririk herri aurkeztuko dute Durangaldean. Lehenengo aurkezpena joan zen barikuan egin zuten, Mañarian. Beste data bi ere zehaztuta daude: Atxondon otsailaren 7an, eta Berrizen otsailaren 21ean.

Herri tradizioan ume txikiekin jolasteko edota kantatzeko ohi-

koak izan diren abestiak batzen ditu *Txalopin txalo* liburuak. Lan honen helburua ahozko ondarea berreskuratzea eta transmititzea da, Durangaldeko batez ere. Horretarako, edadeko herritarrengana jo dute, bideo grabazioz gaur egun bizirik dauden kantak jasotzeko. Durangaldeko adineko 10 pertsonaren testigantzetatik jaio da proiektua.

Berbarok dinamizatu du proiektua Mankomunitatearentzat, eta Labayru Fundazioak egin du kantu liburuaren ekoizpen lana. Proiektua Eroskik finantzatu du.

Izurtzako Korrala guneak ikastaro berriak iragarri ditu

Martxoan eta apirilean klown munduari buruzko saiok egingo dituzte Korrala sormen gunean

J.D. IZURTZA

Iaz legez, aurten ere askotariko ikastaro eta tailerrak antolatze-ko asmoa dute Izurtzako Korrala sormen gunean. Dagoeneko urteko lehenengo ekintza biak zehaztuta dituzte. Lehenengo martxoaren 10etik 13ra izango da eta parte hartzaileek inprobisazioari buruzko sekretuak ikasiko dituzte Aragoiko Teatro Indigesto konpainiako J.J. Sanchez aktorearen eskutik. Konpainia honek 15 urte baino gehiagoko ibilbidea darama komedia eta inprobisazioa lantzen. Arlo horretan aurretik esperientzia dutenei zuzenduta dago.

Bigarren ikastaroak *Disfrutando del ridículo* du izena eta Ganso & Cia konpainiako Cecilia Paganinik emango du, martxo eta apirileko martitzenean. Ikastaroan clown munduko oinarriak irakatsiko dituzte eta esperientziarik bako jendearentzat aproposa da.

Booktrailer bat egiteko tailerra Atxondon, otsailaren 1ean

Liburutegian izango da eta Mireia Delgadok dinamizatuko du. DBHko gazteei zuzenduta dago



Booktrailer lehiaketa aurkezteko Galtzagorrik egindako aurkezpena. GALTZAGORRI

J.D. ATXONDO

Galtzagorri elkarteak Liburu Gaztea Booktrailer Lehiaketa hasi du, gazteen artean euskarazko irakurketa eta ikus-entzuzko sormena sustatzeko. Booktrailer liburuaren trailer edo sinopsi interaktibo bat da. Ildo horretatik, Atxondon udal liburutegiak DBHko gazteentzat zuzenduriko tailerra antolatu du, booktrailer bat egin eta lehiaketara aurkezteko. Mireia Delgadok dinamizatuko du jarduera eta otsailaren 1ean izango da, 10:30etik 13:30era, liburutegian bertan.

Harkaitz Cano idazlearen *Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez* liburua aukeratu dute tailerrarako. Izen ematea zabalik dago, 697 19 67 48 whatsapp zenbakian eta liburutegia@atxondo.eus helbide elektronikoan.

Instalazio fotovoltaikoa eraikiko dute Mainondon

Otxandioko Udalak ia 2,3 milioi euroko aurrekontua izango du aurten. Trantsizio energetikoa bideratzea eta gizarte arloa indartzea izan dute helburu. Gainera, iazko soberakinari eskerrak zenbait proiektu garrantzitsu gauzatzeko aukera izango dute

A.Basauri OTXANDIO

Oreka Otxandioko energia berri-erregeneratzailearen komunitateak lehenengo instalazio fotovoltaikoa eraikiko du aurten Mainondon. Proiektu horretarako erabango du aurtengo udal aurrekontuko inbertsio atalaren zatirik handiena: 178.000 euro. Abuzturako amaizuna egongo da 100 etxerentzako energia sortuko duen instalazioa. Egoitz Garmendia alkatearen berbetan, abenduan proiektua eta bazkideekin egin beharreko kapital ekarpena onartu zuten, eta "gogotsu" daude proiektua gauzatzeko. Herritarrek, udalak, 11 Lore elkarteak eta Ekitermik kooperatibak osatzen dute komunitatea.

Udalak ia 2,3 milioi euroko aurrekontua onartu zuen abenduan. Gobernu taldeak trantsizio energetikoa bideratzea izan du helburu, eta baita gizarte zerbitzuetarako aurrekontua indartzea ere; 118.000 eurora igo



Oreka komunitateko batzarra. UDALA

dute. Jaietarako aurrekontua ere igo dute, 50.000 eurora, eta lurrak erosteko (30.000 euro), komertzioa sustatzeko (18.000 euro), eta migrazioagaz eta elkarbizitzagaz loturiko ekintza plan bat egiteko (15.000 euro)

ere gorde dute dirua, besteak beste. EAJK aurka bozkatu zuten.

Iazko zenbait proiektu aurten gauzatzeko direla jakinda landu dute aurrekontua. Alkateak Elixosteko urbanizazioa (230.000 euro) eta Mañondokok kirolgunea (730.000 euro) aipatu ditu. Udalak argiteria publikoa berri-erregeneratzea ere hartu zuen. Bada, proiektu horiek iazko soberakinari eskerrak gauzatzeko dituzte. Bestalde, Etxebizitza Sailak zine zaharreko orubean eraikiko den etxebizitza blokearen lanak lizitaziora aterako ditu. "Urte intentsoa izango da, hainbat obra gauzatzeko direlako", esan du Garmendiak.

Zergak eta tasak

Bestalde, zergak eta tasak %1,5 igo dituzte. Zaborragaz loturikoa ezik. Hori %11 igo dute. Alkateak azaldu duenez, "zerbitzuaren kostua estaltzea" lortuko dute horrela. Otxandiok Gorbeialdeagaz kudeatzen du zerbitzua.

Kanpaina berria eskualdeko naturguneak errespetatzeko

Kanpaina Atxondoko Bide Berdean oinarritu dute, leku hori eskualdeko eremurik turistikoetariko bat delako



Kaleraturiko bideoaren irudi bat. URKIOLA LANDA GARAPENERAKO ALKARTEA

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Urkiola Landa Garapenerako Alkateak kanpaina bat hasi du eskualdeko naturguneen erabilera egokia bultzatzeko. Bideo bat sortu dute eta naturguneetako hainbat arazo islatu dute bertan. Kanpaina Atxondoko Bide Berdean oinarritu dute batez ere, leku hori eskualdeko eremurik turistikoetariko bat delako. Izan ere, kanpaina egin baino lehenago ikerketa bat egin dute, eta bisitarien landa eremuko bizikidetzan eragiten dituzten egoera gatazkatsuak aztertzen dituzte. Kanpainaren bultzatzaileek diotenez, urtero milaka pertsonak bisitatzen dituzte Durangaldeko ingurune naturalak, eta horietariko askok "eragozpenak eta eragin negatiboa sortzen dute portaera desegokiaren ondorioz".

Markel de la Fuentek hasiko du Iurretako VIII. Mendi Astea

Eskalatzaile elorriarra parte izan zuen espedizio batek eskalada bide berri bat zabaldu zuen iaz Pakistanen

J.D. IURRETA

Zaldai mendi taldeak Iurretako VIII. Mendi Astea antolatu du datorren asterako. Hainbat berbaldik, 2024ko Mendi Erronkako sari banaketak, Basatzen bizikleta martxak eta Gallandarako irteerak osatzen dute egitaraua.

Markel de la Fuente elorriarrak hasiko du egitaraua, martitzenean. Iaz Pakistango mendietan bizitako abentura izango du berbaiki eskalatzaileak. Lau laguneko espedizio batek 7-B zailtasun mailako bide berri bat zabaldu zuen

Karakorum mendilerroan. Urta-rrilaren 22an, Bego Gonzalez eta Elixabete Arbe joango dira Iurretara, Pirinioetako GR-11 zeharkaldian bizitakoak kontatzera.

Aitor Intxaurrearen eta Ander Salsamendiren 'Hiru haundiak. Taupadak eta gailurrak' ikus-entzunekoa ikusteko aukera egongo da, 23an. Intxaurreak gidatuko du saioa eta hainbat iurretarren esperientziak entzuteko aukera egongo da. Saio guztiak Gouiuria kulturunean izango dira, 19:00etan.



Markel de la Fuente eta bere espediziokideak Pakistanen.

Danborrada erraldoia egingo dute Bakixa auzoan, zapatuan

Datozen egunetan San Sebastian jaiak ospatuko dituzte Iurretako Bakixan. Auzoa Herri autobusa egongo da

A.B. IURRETA

Asteburuan danbor hotsa nagusituko da Iurretako Bakixa auzoan. Auzokoak San Sebastian jaietan murgilduta daude atzotik, eta zaturarako danborrada erraldoia egiteko hitzordua ipini dute, 21:30ean.

Gaurko ere prestatu dituzte ekintzak. Maiztegi eskolako dantza taldeak erakustaldia egingo du, 17:30ean, eta, ondoren, nagusien eta umeen igel txapelketak hasiko dituzte. Mus arinaren txapelketa jokatu da, 20:00etan, eta gauerdian Iratik kontzertua emango du.

Paella txapelketagaz hasiko da eguna zapatuan. Ondoren, Antxok eta Pantzak *Eman bizia* ikuskizuna egingo dute. Danborrada erraldoia hasi aurretik, etxeko txikiak ere izango dute euren aukera: danborrada txikia hasiko da, 19:00etan. Gau giroa

Gauargi taldeak berotuko du, 22:00etan.

San Sebastian eguna

Iurretako Mikel Deuna dantza taldearen saioagaz hasiko dira domekako ekitaldiak, 12:00etan. Ondoren, herri kirolen erakustaldia hasiko da. Amaitzean, Gorka, Izarra, Mikel eta Ander trikitilariak giroturiko herri bazkarian batuko dira.

San Sebastian egunean meza izango da, 12:00etan. 16:30ean bingo herrikoia hasiko da, eta 19:00etan suziriak jaurtiko dituzte jaiak agurtzeko.

Iurretako Kofradiek antolatuta, Auzoa Herri autobusa egongo da, zapatuan, Maspe kaletik Bakixara joateko eta handik bueltatzeko, 16:30ean eta 20:30ean. Beste autobus bat ere egongo da Bakixatik bueltatzeko, 02:00etan.

San Blas bezperan 'Kandeleridxo' abesteko deialdia Abadiñon

Hurrengo entsegu urtarrilaren 29an 19:00etan egingo dute Probalekuan; herritar guztiak gonbidatu dituzte

M.Z. ABADIÑO

Otsailaren 2an, San Blas bezperan, abadiñarrek hitzordua dute eguna luzatu dela eta sasoi honetan negua biguntzen hasten dela iragartzen duen *Kandeleridxo* kanta abesteko eta ohitu-

ra hau berreskuratzeko. Herritar talde batek bultzatuta, Zelaietan ibiliko dira kantuan.

Ekimenaren bultzatzaileek azaldu dutenez, Kandelario Eguna, beste ohitura batzuk lez, Europan zehar zabaldua dago:

Alemanian *Lichtmess* deitzen diote, esaterako, eta Frantzian *La Chandeleur*. Hala ere, ospakizunak antzeko ezaugarriak ditu leku guztietan: abestu, kantuen bitartez eskean irten zein zarata egin lurra esna dedin.

Otsailaren 2an horixe egingo dute Abadiñon. "Lurra makilekin joko dugu, berau iratzar dadin", azaldu dute. Abadiñarrek abesteko duten kanta 1990ean Atanasia Zabalari jasorikoa da. *Abadiño lexikoaz* liburuan batuta dago.



Ekimena bultzatu duten kideak.



POLITIKAN

MARKEL LARRUSKAIN
EH-BILDU

Eraikinak hutsik, herritarrak kalean

Eskola ordutegitik kanpo ez dago ume txikiekin egoteko leku aproposik, nerabeentzat ez dago kirolerako doako espazio estalirik eta gazteek ez dute beraien iniziatiba kultural eta politikoak garatzeko tokirik. Honetaz gain, herritarroei modu boluntarioan ekarpena egiten diguten elkarte gehienak leku prekarioetan edo kalean biltzen dira. Udal azpiegiturak ez dira behar beste erabiltzen eta askotariko eskari eta beharrezan bete gabe gelditzen dira; ez baliabide faltagatik, kudeaketagatik baizik.

Hamaika dira udalaren jabetzak diren eraikinak, gehienak, zuzenean edo organismo autonomoen bitartez, udalak kudeatzen ditu. Batzuk aipatzearen: Plateruena, Landako Gunea, Elkartegia, Zabalarra eta Landako eskola publikoak, Hizkuntza Eskola, frontoiak, Merkatu Plaza, Musika Eskola, Udal Euskaltegia...

Beharrezan behin eta berriz mahai gainean jarri dituzten herritar taldeekin biltzea eta egoerak bideratzea udalaren ardura da. Dena ezin da kolpetik egin, baina bide orri bat zehaztu behar da eta prozesuak abiatu behar dira berandu baino lehen. Baliabideak badaude. Egin dezagun bultza denok batera. Ez bihar, ez etzi, ez etzidamu, orain.

Erortzear dauden eraikinak eta bota nahi dituztenak hurrengo artikuluan.

DURANGALDEA ASTEON

Ortu publikoen instalazioa lehiaketara Abadiñon

ABADIÑO Zelaietako trinketaren atzeko landan egingo dituzten ortu publikoen instalakuntza eta hornidura egiteko lehiaketa zabaldu du Abadiño Udalak. Udal arduradunek azaldu dutenez, 50 metro karratuko 66 partzela prestatuko dituzte, eta, horretarako, 71.693 euro erabiliko dituzte. Interesa dutenek urtarrilaren 20ra arte aurkeztu ditzakete proiektuak. Lanak udaberriaren egitea aurrekusten dute.

Sormena eta elkartasuna batuta Atxondon

ATXONDO Atxondoko Udalak aurten atera duen egutegia ikasleek egindako marrazkiekin osatuta dago. Esker ona adierazteko, udalak La Cuadri del Hospi elkartearen eskumuturreko solidario bana eman die artista gazteei. Ekimen horregaz, Atxondoren konpromiso solidarioa adierazi gura izan dutela esan dute, "eskumuturrekoa erosita egindako dohaintzaren bitartez herritarrak elkar-tasun keinu horren parte bihurtuz".

'Motorshow' eguna domekan Mallabian

MALLABIA Domekarako, urtarrilak 19, 'motorshow' eguna antolatu dute Mallabian, Goitondo industrialdean. 10:00etan emango diote hasiera egunari, entrenamenduekin. 11:00etatik 16:00etara *slalom*-a egingo dute, eta 12:00etan 15 kilometroko ibilbide bat osatuko dute. 16:00etan *drift* estilo librean ariko dira.



Palestinaren aldeko mobilizazioa Berrizen

BERRIZ Domekan, urtarrilak 19, Palestinaren aldeko mobilizazioa egingo dute Berrizko udaletxetik Olakuetara, Israelek eta Hamasek bake akordioa sinatzea aurreikusi duten egunean, hain zuzen ere. Manifestazioa Giza Eskubideen aldeko Berrizko Gernika-Palestina taldeak antolatu du. Martxa 17:30ean irtengo da. Genozidioa salatuko dute, eta "sionisten produktuak erosteari boikota egitera" deitu.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:

• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



ZENBAKIEN BIDEA

Eraman perretxikoa otzarara,
1etik 30erako zenbakiak lotuta



			1	6	5	6	7	2	4	11	3
			2	3	4	10	8	9	3	10	14
22	19	18	17	16	19	12	11	10	7	15	13
23	20	21	22	15	14	13	16				
19	22	18	23	20	29	28	29				
14	28	26	24	25	26	27	30				

 A cartoon illustration of a yellow woven basket with a smiling face, filled with purple mushrooms and acorns. There are also some leaves and stars around it.

SUDOKUA


Osatu segida.

TXARTELA SORTU

Margotu eta moztu marrazkia.

Tolestu eta deskubritu dinosauroaren arrautza txartela.



Aritz Maldonado DURANGO

Iaz 100 urte bete ziren Nestor Basterretxea artista jaio zela. Basterretxea ertz askoko artista zen eta eskulturan, zineman, diseinuan eta margolaritzan nabarmendu zen, eta, orokorrean, euskal kulturaren susperraldia- ren aldeko lanean. Hain zuzen ere, hain ezaguna ez duen aldea nabarmentzen duen erakusketa dago Durangoko Arte eta Historia museoan otsailaren 2ra arte. Beste ekimen osagarri batzuk ere antolatu dituzte; besteak beste, berbaldi bi. Lehenengoa atzo izan zen. Bertan Aitor Aurrekoetxeak Gaur taldea eta Euskal Eskolako mugimenduak aletu zituen. Bigarren berbaldia urtarrilaren 23an izango da, eta bertan Andere Larrinagak Nestor Basterretxea zenaren bizitza eta obra aztertuko ditu. "Artelana eta bizitza da proposatu zidaten izenburua, eta egokia iruditzen zait. Bere biografiari buelta bat eman, eta obraren errepaso bat izango da, euskal kulturari egin dizkion ekarpenik garrantzitsuenak zeintzuk diren birpasatzeko, baita Espainiako arteari eginda-koak ere, Espainian ere artista aipagarria izan zelako", esan du Larrinagak. Berbaldia 19:00etan izango da.

Banandu daitezke bere obra eta bere bizitza?

Nire ustez, artista batengan ere ezin dira banandu, baina Basterretxearen kasuan oraindino gutxiago. Bere biografiari erreparatuta, batez ere jaio zen garaiak eta bere bizipenek asko baldintzatu zuten bere obra. Agerikoa da zeintzuk izan ziren bere obraren gairik garrantzitsuenak, eta nondik eta zein konpromisogaz bideratu gura zuen bere praktika artistikoa. Oso pertsonaia konprometitua izan zen euskal kulturagaz eta memoriagaz, eta, dudarik barik, bere biografiak asko baldintzatu zuen bere lana. **Erbestean Oteizagaz kointziditu zuen. Horrek bereziki eragin zuen beragan?**

Argentinan elkar ezagutu zuten, eta Basterretxea une hartan konturatu zen Oteiza artista interesgarria zela. Baina garai hartan barik, biak hemen berriro elkar- tu zirenean estutu zen euren hartu- emana. Lehenengo topaketa haien garrantzitsuak izan ziren, baina euren elkartrukea nabarmenagoa izan zen hemen. Dudarik barik, biak oso figura garrantzitsuak izan ziren Gaur taldea

"Basterretxearen marrazkilari sena aldarrikatu behar da"

MUSEOA Nestor Basterretxea jaio zenetik 100 urte bete direla gogoratzeko, ekitaldi sorta antolatu dute; tartean, Andere Larrinaga (Amurrio, 1978) EHuko irakasleak urtarrilaren 23an Durangoko Arte eta Historia museoan emango duen berbaldia



Andere Larrinaga.

sortzeko eta Euskal Eskolako Mugimenduak sustatzeko. Elkarlan hori, batez ere, Irunen espazioa eta etxebizitza konpartitu zituztenean gertatu zen, elkarrengaz hainbat proiektutan ibili zirenean.

Elkar errekonozitu eta aurpegia jartzeko baliagarria izan zen Argentinakoa. Oteiza ahaztezina da, baina, esan duan moduan, euren hartu- emana hemen sendotu zen; hala ere, argitu gura nuke erbesteko garaia ere garrantzitsua izan zela geroko sormenerako. Oteizak gerra aurretik erabaki zuen Hego Amerikara joatea, baina Basterretxearen familiak ihes egin behar izan zuen gerragaitik. Biek gerra galdu zuten aldeko konpromiso argia zuten. Horrek euren praktika eta konpromisoa baldintzatu zituen, euskalgintzagaz orokorrean eta abangoardiako euskal artegintzagaz bereziki. **Erakusketara itzulita, zelakoa zen Nestor Basterretxea ilustratzailea?**

Arte munduko lehenengo pausoak marrazkilari publizitario lez eman zituen. Nerabezarotik marrazten zuen eta horixe izan zen bere hastapena artegintzan. Euskal

"KONPROMISO ARGIA ZUTEN GERRA GALDU ZUTENEN ALDE, ETA HORREK ERAGINA ZUEN EUREN LANEAN

Eskolako eskultorerik garrantzitsuenetarikoa izan zela dugu denok buruan, marrazkigintzatik pinturarako prozesua egin zuela, eta handik eskulturara, baina dena batera gertatu zen. Diseinua, diseinu industrialia, arkitektura proiektuak... bere marrazkilari gaitasun hori oso barruan zuen, senean, eta urteurren honek bere osotasunean aldarrikatu du hori. Peio Agirrek, adibidez, Basterretxearen kaleidoskopioaz berba egin zuen, eta, hain zuzen ere, marrazkigintzak beste diziplinak batzen ditu, hori izan baita mamia beste diziplinetan ere ondo eta sendo aritzeko. Arte Ederren museoak bere arkitekturarako eta diseinurako gaitasuna aldarrikatu zuen moduan, bere marrazkilari aldea errekonstruzioa ere oso garrantzitsua da, hain zuzen ere zooma marrazkigintzan eginez.

Amaitzeko, ausartuko zinateke Basterretxea edo bere obra hiru berbetan azaltzen?

Hemen ere berba lapurtuekin nabil (barrez). Unibertsitatean lan egiten dudanez, Arte Garaikideko eta bereziki euskal Arte Garaikidea jorrazten duten lan- kideak ditut, oso onak, eta euren esanetan balio anitzeko artista zen, diziplina askotan ondo eta sendo ibilitakoa, lehen esan duan moduan. Alde espresio oso interesgarria zuen, eta analisisirako gaitasun izugarria. Helduaroko lanetan, analisia eta espresioa batzen zituztenean, oso obra sendo eta oparoak egin zituen. Gainera, abstrakzioaren eta figurazioaren arteko pibotatze oso interesgarria ekarri zuen. Beste hainbat euskal artistak ere izan dute abstrakzioaren edo figurazioaren arteko eredu bat, baina Basterretxeak oso eredu propioa ekarri zuen; arkitekturarako edo diseinurako zuen gaitasuna nabarmenduko nuke hor. Baita ere goi mailakotzat jotzen diren diziplinetan artea egiteko gai zela, eta txiki- goeta, diseinuan edo arte aplikatu- etan, esaterako. Hortaz, merezi du bere lanekin erakusketa berri bat egitea eta begiradaxo bat zuzentzea artista honi. Azken batean, urteurren hauek posible egiten dute pertsonaia hauek gizarteari egin dioten ekarpena gogoratzea. Basterretxearen kasuan, gainera, euskal gizarte- gazko konpromisoa ere azpimarratuko nuke. Pozarren noa Durangora artista honi buruz dudak ikuspuntua kontatzera.





Oraindik ez zara ANBOTOkko whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp kanalera

 Eskaneatu QR kodea

* Izan zaitetz berriemaile ere. Bidali zure argazki eta bideoak

15:24
Cámara
ANBOTO komunikabi...

[ARGAZKI GALERIA]: "Eskerrik asko bihotz-bihotzez urte hauetan gazteetan gure endean egot...
Auzo gizonen Abartarrentzako tabernako familia... amonak e...
anbotoko.org

[ARGAZKI GALERIA]: Abadiñoko Abarketeruena tabernako familia amara eman dio bost bat hamarkadako ibilbideari. Aitziber, Ibai, Ana, Iñi eta gainerako langileek ospakizun eder batekin amaitu dute tabernako jarduna:

Etika edota mendekua, 'Kortxoaren dilema'-n

ANTZERKIA Zapatuan, hilak 18, Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreek 'Kortxoaren dilema' antzeztuko dute Durangoko San Agustinen; emanaldia 19:00etan izango da. Lana 2023ko azaroaren 15ean estreinatu zuten, Bilboko Arriaga antzokian

A. M. DURANGO

Kortxoaren dilema thriller politikoak etika, koherentzia eta traizioa osagaiak batzen ditu. Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreek elkarregaz egin duten hamaikagarren lanean, Martinez Irakaslea eta Telleria Ikaslea dira. Etika eta filosofia politikoan katedraduna den jubilatatu ezkertiar, polemiko eta itzal handikoa da lehenengoa. Pronostiko eskaseko minbiza detektatu diote, eta duen irtenbide bakarra aberats ospetsu batek osasun sistema publikoari dohaintzan eman dion radioterapia tratamendua da: printzipioe-kiko leiala izatearen eta bizia salbatzearen artean erabaki beharko du, eta hor agertuko da Ikaslea. "Trama eroak endreduzko komedia bihurtzen du antzezlana. Politikoa ere bada, pertsonaiak amildegiaren ertzean kokatzen dituelako, printzipioak mugaraino eramanez, eta bizia bera jokatzen dutelako", azaldu dute konpainiakoek. Tartean



'Kortxoaren dilema'. PIO ORTIZ DE PINEDO

konpainiak 2023ko azaroan estreinatu zuen antzezlana hau, Bilboko Arriaga antzokian.

Kamikazen estreinua

Kortxoaren dilema San Agustin kulturgunearen denboraldi berriko bigarren emanaldia izan-

go da; joan zen astean, Ixo teatrotik *Eros* lana aurkeztu zuen, aretoa lepo zegoela. Ondoren etorriko dira, besteak beste, Kamikaz kolektiboaren *Renata* lanaren estreinaldia, eta Gorakadaren *Moko*, *Indalecio Bizkarrondo Bilintx*.



Jon Basaguren, 'Izaki Gardenak' taldeko musikaria. LIBE KORTAZAR

Izaki Gardenak taldearen 'Orube' lan berria Amaraun Arte Fabrikan

MUSIKA Sei urteko isilaldiaren ondoren, Jon Basaguren gidatzen duen taldea 'Orube' lanagaz bueltatu da

A. M. ABADIÑO

Lan berriagaz ez ezik, Izaki Gardenak berritasunekin ere bueltatu da. Hain zuzen ere, *Orube* diskoa kaleratu du oraintsu, eta gaur ekingo dio zuzenean aurkezteari, Hendaian. Etzi, hilak 19, Abadiñoko Amaraun Arte Fabrikan emango du kontzertua, birako bigarrena. Jon Basaguren gidatzen duen proiektuak doinu goxoekin jarraitzen du, baina AEBetara barik hurbilago begiratzen du lan honeguz. "Orube" diskoan agerikoak dira azken diskoetan landutako amerikana oinarri sendoaren arras-

toak, baina, era berean, taldearen hasierako lehenengo lanen freskotetasun eta arintasun puntu hori berreskuratu dugu", esan dute taldekideek. Zortzi abestik osatzen dute Izaki Gardenak taldearen laugarren lan hau.

Kontzerturako sarrera guztiak salduta daude.

Eguenean, Ainke

Urtarrileko bigarren emanaldia Ainke talde durangarraren kontzertua izango da, eguenean, hilak 23. Iaz kaleraturiko *Hamar gezur ta hiru tiro* lana aurkezten dabil laukotea.



GAI LIBREAN

ESTI ALBIZU GOIKOETXEA BIZENTA MOGEL

Biblioteka komunitarioa: norbanako proiektuetatik ekarpen kolektiboetara

Biblioteka komunitarioak komunitatearentzat jakintza ugari eskaintzen ditu eta herritarren parte-hartzea eta lankidetzat sustatzen ditu. Haren helburua ez da soilik mailegu zerbitzua eskaintzea, baizik eta kultur gunea eta gizarte elkargunea izatea; interes komuneko pertsonak elkartzeko guneak dira. Irakurketa taldeak eta lanerako guneak bezalako ekimenek lankidetzat sustatzen dute, eta, hala, norbanako proiektuak kolektibo bihurtzen dira.

Biblioteka komunitarioak ezinbesteko tresnak dira norbanako proiektuak sustatzeko eta komunitateari ekarpen kolektiboak egiteko; etorkizun inklusibo eta jasangarriago baten oinarriak dira.

Durangoko Bizenta Mogel udal bibliotekak bere proiektuarekin biblioteka komunitarioa izan nahi du; bizirik dagoen espazioa da, eta ikaskuntza, ideia trukea eta elkarlana bultzatu nahi ditu. Bertako jarduerak eta erabakiak komunitatearen beharretara egokitzen aha-

legintzen da, eta horren bidez parte-hartzea eta lotura emozionala sustatu nahi ditu.

Bide hori jorratzen jarraitu nahi dugu eta oraingo honetan 'LAB egunak' deituriko tailerrak eskaini nahi dizkizuegu:

Otsailtik ekainera bitartean, hileko lehen ostegunean, arratsaldean, bibliotekako gela bat sorkuntzarako es-

ARTISTEN ETA EKINTZAILE TXIKIEN TALENTUA GARATZEKO ESPAZIOA ESKAINI NAHI DUGU, KOMUNITATEARENTZAT ONURAGARRIAK DIREN PROIEKTUAK SORTZEKO

pazio irekia izango da. Espazio horretan proiektuak prototipatzeko tresnak eta makinak egongo dira: 3D inprimagailua, laser mozketak makina, zirkuituak sortzeko material elektronikoa eta diseinuak gauzatzeko ordenagailuak. Gainera, bertako elementurik balioetsuenak komunitatearen jakintza eta esperientzia izango dira.

Adinak ez du garrantzi handirik espazio honetan; aldiz, ikasteko, partekatze eta egiteko gogoak bai. Helburua ez da soilik produktuak sortzea, baizik eta gauza berriak ezagutzeko eta sortzeko gozatzea, bakarka zein taldean. Artisten eta ekintzaile txikien talentua garatzeko espazioa eskaini nahi dugu, komunitatearentzat onuragarriak diren proiektuak sortzeko.

Aurrerago, eta bertan nabarmentzen diren interesetan oinarrituta, lantegiak programatuko ditugu: diseinuari loturikoak, software libreak loturikoak, fabrikazio digitalari loturikoak...

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO
LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 17

BERRIZ Antonio Deuna jaiak
Meza, 12:00etan, Antonio Deuna elizan.

II. Amaraune umeentzako mendi
erronka sari banaketa, 17:30ean,
probalekuan.
Sagardotegi ibiltaria eta odoloste
jana, 19:00etan, Olakueta plazan.
San Antonio XVIII. pilota txapelketa
(eskuako finalak), 19:00etan,
Olakueta frontoian.

Berrizen.

GARAI San Anton Eguna
Meza. Ondoren, San Anton
Eguneko erremata.
Elizabarrin, 12:00etan.

IURRETA Sansebastianak
Maiztegi herri eskolako dantza
taldea, 17:30ean. Ondoren,
umeentzako jolasak eta tailerrak.
Igel txapelketak (helduena eta
umeena), 19:00etan.
Mus Arineko Txapelketa, 20:00etan.
Kontzertua: Irati, gauerdian.
Bakixa auzoan.

IURRETA Kontzertua
Garazi & Mario
Korta tabernan, 20:30ean.

ZORNOTZA Aurkezpena
'La Ertzaintza que viene' liburuaren
aurkezpena.
Matrailu gaztetxean, 19:30ean.

ZAPATUA 18

ABADIÑO Antzerkia
'La jaula de las locas' (Itxartu
antzerki taldea).
Errota kultur etxean, 19:00etan.

BERRIZ Antonio Deuna Jaiak
Imanol Ituño Magoa, 12:00etan,
Olakueta frontoian.
Disco festa, 18:00etan, probalekuan.
Kitziki Erromeria + Adur + DJ Yiyi,
22:30ean, Gaztetxean.
Berrizen.

BERRIZ Ate irekiak
Umerri eskola aktiboak atearik
irekitzeko jardunaldia antolatu du.
Elizondo plaza 2an, 11:00etan.

DURANGO Antzerkia
'Kortxoaren dilema'
(Tartean Teatro).
*San Agustin kulturgunean,
19:00etan.*

IURRETA Sansebastianak
Paella txapelketa, 14:00etan.
'Eman bizia' (Antxo eta Pantxa)
umeentzako ikuskizuna, 17:00etan.
Danborrada Txikia, 19:00etan.
Danborrada Erraldoia, 21:30ean.
Gauargi taldea, 22:00etan.
Bakixa auzoan.

IURRETA Irteera
Bizikleta irteera Mungiara. lurreta
Txirrindulari elkarte.
lurretan, 10:00etan.

DOMEKA 19

ABADIÑO Kontzertua
Izaki Gardenak taldea.
Amaraun Arte Fabrikan, 13:30ean.

BERRIZ Antonio Deuna Jaiak
Eskualdeko XLIII. barazki eta fruitu
erakusketa, 11:00etan, probalekuan.
Baserriko txerri burualde dastatzea,
12:00etan, Olakueta plazan.
Meza, 12:30ean, Antonio Deuna
baselizan. Ondoren, Iremiñe eta
San Lorentzo dantza taldeen
erakustaldia. Ekhi Lambert,
19:00etan, Antonio Deuna baselizan.
Berrizen.

IURRETA Sansebastianak
*lurretako Mikel Deuna dantza
taldearen saioa, 12:00etan.*
Ondoren, herri kirolen erakustaldia.
Bazkari herrikoa, 14:30ean. Gorka,
Izarra, Mikel eta Ander trikitilariak
girotuko dute. Jarraian, dantzaldia.
Bakixa auzoan.

IURRETA Irteera
Bizikleta irteera Basaurira. lurreta
Txirrindulari Elkarte.
lurretan, 10:00etan.

ASTELEHENA 20

BERRIZ Antonio Deunaren Jaia
Barrakak merkeago (17:00-19:00).
Nekazaritza-olinpiadak. Ikuskizuna,
txorizo ogitartekoa eta edaria.
Olakueta frontoian, 19:00etan.



TANTTAKA

ZORNOTZA Antzerkia
Tanttaka antzerki konpainiak 'Emakume baten borroka eta metamorfosia'
antzezlan aurkeztuko du, gaur, Zornotzan. Eneko Sagardoy, Eva Trancón
eta Vito Rogado igoko dira taula gainera, Fernando Beranuesen
zuzendaritzapean.
Urtarrilak 17, barikua, Zornotza Aretoan, 20:00etan.

IURRETA San Sebastian Eguna
Meza, 12:00etan.
Bingo herrikoa, 16:30ean.
Jaiak agurtzeko suziriak, 19:00etan.
Bakixa auzoan.

MARTITZENA 21

IURRETA Berbaldia
'Mun Brakk II. Izar gorri, mamuon
betiko argi' (Hizlaria: Martin De la
Fuente). Zaldai mendi taldeak
antolatutako lurretako VIII. Mendi
Astearren barruan.
Goiuria kulturgunean, 19:00etan.

EGUAZTENA 22

ABADIÑO Ipuinak
Ane Gebara ipuin kontalaria. 4-8
urteko umei zuzendutako saioa.
Mediatekan, 17:00etan.

IURRETA Berbaldia
'GR-11. Zeharkaldi bat baino
gehiago' (Hizlariak: Bego Gonzalez
eta Elixabete Arbe). Zaldai mendi
taldeak antolatutako lurretako VIII.
Mendi Astearren barruan.
Goiuria kulturgunean, 19:00etan.

EGUENA 23

ABADIÑO Kontzertua
Ainke taldea.
Amaraun Arte Fabrikan, 19:30ean.

DURANGO Berbaldia
'Nestor Basterretxea. Artelana eta
bizitza' berbaldia. Hizlaria: Andere

Larrinaga EHuko Artearen
Historiako irakaslea.
*Arte eta Historia
Museoan, 19:00etan.*

IURRETA Berbaldia
Mariasun Landagaz berbaldia, Peru
Magdalenak gidatuta.
Herri Bibliotekan, 18:30ean.

IURRETA Ikus-entzunekoa
'Hiru Handiak. Taupadak eta
gailurrak', Aitor Intxaurrearen eta
Ander Salsamendiren ikus-
entzunekoa. Intxaurreak berak eta
hainbat iurretarek euren
esperientzia azalduko dute.
Zaldai mendi taldeak antolatutako
lurretako VIII. Mendi Astearren
barruan.
Goiuria kulturgunean, 19:00etan.

BARIKUA 24

ELORRIO Antzerkia
'Itzulera' (Dejabu konpainia).
Arriola antzokian, 20:00etan.

IURRETA Ekitaldia
Mendi Erronka 2024. Sari banaketa.
Zaldai mendi taldeak antolatutako
lurretako VIII. Mendi Astearren
barruan.
Askondoko aterpean, 19:00etan.

ZORNOTZA Antzerkia
'El patio de las moreras'
(Vaiven konpainia).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEAN

**Klara eta hazi magikoen
misterioa**
Domeka 19: 17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Babygirl

Barikua 17: 18:00, 20:30.
Zapatua 18: 19:15, 21:30.
Domeka 19: 19:30.
Astelena 20: 18:00, 20:15.
Martitzena 21: 18:00, 20:15.
Eguaztena 22: 19:00.

Hombre lobo

Barikua 17: 18:00, 20:30.
Zapatua 18: 16:45, 19:15, 21:30.
Domeka 19: 17:00, 19:30.
Astelena 20: 18:00, 20:15.
Martitzena 21: 18:00, 20:15.
Eguaztena 22: 19:00.

La semilla de la higuera sagrada

Barikua 17: 19:00.
Zapatua 18: 19:30.
Domeka 19: 19:30.
Astelena 20: 18:00.
Martitzena 21: 18:00.
Eguaztena 22: 19:00.

Sonic 3

Zapatua 18: 17:00.
Domeka 19: 17:00.

Mufasa. El Rey León

Zapatua 18: 16:45.
Domeka 19: 17:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Quando cae el otoño

Zapatua 18: 20:00.
Domeka 19: 20:00.
Astelena 20: 20:00.

Vaiana 2

Domeka 19: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

¿Es el enemigo? La película de Gila

Zapatua 18: 20:00.
Domeka 19: 20:00.
Astelena 20: 20:15.

Guardianes en la ópera

Zapatua 18: 17:00.
Domeka 19: 17:00.

Por donde pasa el silencio

Martitzena 21: 19:00.

ZAPATUA 25

ZORNOTZA Kontzertua
Musikagaz Fest Euskal Musika
Sortzaile Gazteen Jaialdia: Narrau eta
Lagunak + Naz Taldie + Dj Kene +
Eztandap + Heriotz + Zilibito
Records + Aria + Mirari + Ziraun+
Kai Na Kai + Albina Stardust
*Zornotzako hainbat gunetan,
13:00etatik 00:30era.*



Asteburuan Real Sociedad C liderraren kontra jokatuko dute Zubietan.

"Elorrion presioagaz eta urduritasunagaz gozatzen ikasi dut"

FUTBOLA 18 urte gaz, Izar Zubiaga Iriarte (Durango, 2006) Elorrio futbol taldeko atezain titularra da. Euskal Ligako lehenengo itzulia amaitu berri denean, golik gutxien jaso duen taldea da Elorrio: 10 gol 17 partidutan. Zubiagak taldeko lanari eman dio meritua

Joseba Derteano ELORRIO

Futboleko lehenengo urteak Kurutzia Ikastolan eta Ezkurdi klubean eman zituen. Kadeeteetako lehenengo urtean Athleticera batu zen. Han hiru urte egin eta gero, Elorriora etorri zen, utzita. Elorrion bila zebilena aurkitu zuen eta uko egin zion Athleticera bueltatzeko aukerari. Gurago izan zuen zorionsu sentitzen zen tokian geratu.

Taldeak sekulako denboraldia darama. Zure ustez, zeintzuk dira errendimendu onaren gakoak?

Taldeko giro ona da gakoetariko bat. Beste taldeetan ez dut sentitu Elorrion sentitzen dudana. Lagun talde bat gara: arratsaldeetako planak, partidu ostekoak, jaietakoak... Konfiantzazko giroa da, etxekoa. Giro gustagarria izateak eta taldekideengandik babestua sentitzeak sekulako

eragina du jokoan eta norbere konfiantzan. Futbolean jokatzu gozatu egiten dugu. Beste faktore bat motibazioa da eta taldearen martxa onak lagundu egiten du. Denborari dagokionez, gertuko helburuak ipintzen ditugu: hurrengo partidua edo

hurrengo biak. Horrek partidu bakoitza motibazioz hartzen laguntzen digu. Partidu denak dira inportanteak.

Taldean badago jokalaria beterranoen eta apurka erreleboa hartuko duten gazteen arteko adin arrakala bat. Zelan kudeatzen duzue hori?



Zubiaga Euskal Ligan golik gutxien jaso duen atezaina da orain arte. U.R.

Kanpotik begiratuta, nahaske- ta kuriosoa da, bai; bitxia da 30 urtekoak edo gehiagokoak 17-18 urtekoekin kalean batera ikustea. Baina barrutik adinak ez du muga bat markatzen, ez du giroa baldintzatzen. Edoze- ri buruz berba egin dezakegu. Nire lagunik gertuenetarikoa batzuk taldeko beterranoak dira. **Elorrio Euskal Ligan golik gutxien jaso duen taldea da: 10 gol 17 partidutan. Atezain lez, datu horrek zer esan gura du zuretzat?**

Ez diot begiratzen marka per- sonalari. Ez dut jokatzeko nire zenbakiak buruan ditudala. Datu hori talde osoaren meritua da, nire balentria bat baino gehiago. Jokalari guztiek, aurrelariengandik hasita, lan ikaragarria egiten dute. Kasik neuk dut meriturik gutxien, taldekideek gauzak oso erraz ipintzen dizkidatelako.

Elorrion badakizu zer den txapel- ketak irabaztea. 2023an Euskal Kopa irabazi zenuten. Zelan gogor- ratzen duzu Eibarren kontrako final hura?

Pozeg gogoratzen dut, bai taldeagaitik eta baita arlo pertso- nalean ere, taldean guztiz en- kajatu nuen urtea izan zelako. Denboraldia amaitzeko modu polita izan zen. Urte hura gogor- ratzen dudana bakoitzean irribarre bat ateratzen zait.

Finala penaltietan erabaki zen eta zure geldiketarik garrantzitsuak izan ziren. Orduan, urte eta erdi gazteagoa zinen. Urduri egon zinen?

Bai, baina Elorrion nagoenetik beste modu batera bizi dut ur- duritasuna. Beste taldeetan presioa gauza negatibo lez bizi nuen; Elorrion, ostera, presio- gaz eta urduritasunagaz gozatzen ikasi dut. Zelaian gertatzen dena gertatzen dela, badakit ber- din-berdin izango naizela mai- tatua taldean, eta horrek asko laguntzen du. Beraz, penaltietan urduri egon arren, ez dut su- fritu nuen gomutarik.

'Beste taldeetan' diozunean, Athletici buruz zabilzala esango nuke. Zenbat urte eman zenituen han?

Kadeteetako lehenengo urtean joan nintzen eta hiru urte eman nituen han. Gero, Elorriora etorri nintzen, Athleticetik utzi- ta. Athleticera bueltatzeko au- kera izan nezakeen, baina ezetz esan nien, Elorrion gusturago nengoela eta hemen geratuko nintzela.

Zeintzuk dira Elorrion geratzeko arrazoiak?

Faktore nagusia giroa da, Elo- rrion ditudan hartu-eman per- sonalen kalitatea. Nire kasuan, Elorrion etxetik, lagunengandik edo Durangon bizi dudanetik gertukoago sentitzen dudana giroa aurkitu nuen. Gero, Athleticen moduko taldeetan sentitzen den presioak zeresan handia du aldagelako giroan. Normala den moduan, adin ho- rietan ikusitako jarrerak eta gerora Elorrion ikusi ditudanak, heldutasun eta esperientzia handiagoko jokalariekin, des- berdinak dira. Beste ikuspegi bat da, futbola bizitzeko beste modu bat, niretzat positiboagoa. Hizkuntza da beste arrazoi bat. Atezainen entrenamenduetan euskaraz egiten genuen, baina entrenamendu orokorretan eta aldageletan dena gaztelania zen. Ni Athleticen sartu nintzenean ez nekien gaztelaniaz. Horrek apur bat isolatuta uzten zaitu. Gerora ikasi nuen eta komuni- katu nintekeen, baina taldeki- deekin hartu-emanak ez ziren gehiegi estutu. Ez zen betirako lagunak egitearen sentsazioa, gaur egun Elorrion gertatzen zaidan moduan.

Atezain lez zeintzuk dira zure dohain nagusiak eta hobetu beharra?

Hobetu beharrekoetan, nire area kanpoko jokoa, aurkariak erasoan dabilzanean; hau da, atzelarien bizkarrera egindako paseak moztera noiz irten eta noiz ez hobeto erabakitzen. Ez da ausardia kontua, momentua ondo aukeratzea edo erabaki zuzena hartzea baino. Nire dohainen artean, ate azpiko lana esango nuke, beharbada. **Asteburuan Real Sociedad C lide- rrean kontra jokatuko duzue Zu- bietan. Lehenengo sailkatu biak aurrez aurre eta sei puntuko alde- bien artean. Zer itxaropenagaz zoazte?**

Oso motibatuta gaude. Egia esanda, horrelako partiduak asko gustatzen zaizkit. Hain talde garrantzitsuari irabazteko aukerak, gainera sailkapenean gertu daudenean, grina berezi bat pizten du taldean.

"BESTE TALDEETAN EZ DUT SENTITU ELORRION SENTITU DUDANA. KONFIANTZAZKO GIROA DA, ETXEKOA"

Igoera lortu eta jaitsiera ekidin gura dutenen derbia

FUTBOLA Abadiñok eta Elorriok Bizkaiko Goren Mailako derbia jokatu dute zapatu arratsaldean, Astola futbol zelaian. Garaipen batek igoera postuan kokatu dezake etxeko taldea. Elorriarrek jaitsiera postutik irteteko behar dituzte hiru puntuak

Joseba Derteano ABADIÑO

Aurten inoiz baino Durangaldeko talde gehiago dabil Bizkaiko Goren Mailan: Abadiño, Elorrio, Iurretako, Zaldia eta Amorebieta B. Ondorioz, sarritan izaten dira derbiak. Hurrengo zapatu honetan izango da, 17:30ean. Abadiñok eta Elorriok neurtuko dituzte indarrak, Astola futbol zelaian.

Lehenengo itzulia amaitzear dagoenean, talde biak puntu beharrean daude, baina helburu desberdinekin. Abadiño goialdean dabil urte osoan, baina emaitza bolada eskas batek —hiru porrot azken bost partiduetan— igoera postutik atera du eta bertara bueltatzeko behar ditu hiru puntuak. Une honetan, puntu batera du igoera postua. Elorrio, oster, jaitsiera postuan dago eta bost puntura du Sestao River B, jaitsieratik kanpora dagoen lehenengo taldea. Beraz, derbiko puntuak ezinbestekoak ditu borrokan jarraitzeko.



Abadiñoko jokalariek zelairatzen. ABADIÑO K.E.

Gainerako taldeak

Eskualdeko taldeen artean, Amorebieta B da ondoen dabilena. Iaz Goren Mailara igo ziren eta aurten ere igoera postuan daude, bigarren tokian. Hamasei jardunalditan partidu bakarra galdu dute. Iurretako

eta Zaldia taldea, oster, sailkapenaren erditik behera daude eta asteburuan Sestao River B-ren eta Gernika Sporting-en zelaia bisitatuko dituzte hurrenez hurren. Helburu bera dute biek: jaitsierako mamuak uxatzea.



Ezkerrean, DKTko nagusiak. Eskuman, Bidezabaleko 18 urtez azpiko taldea.

Durangaldea Euskadiko kroslaririk onenen harrobi

KROSA DKTko gizonak Euskadiko txapelkun geratu dira nagusietan; Bidezabaleko emakumeak 18 urtez azpikoan

J.D. DURANGALDEA

Durango Kirol Taldeak (DKT) eta Bidezabalek Euskadiko klubirik onenen artean daudela erakutsi zuten, beste behin, joan zen asteburuan Ordizian lehia-tutako Euskadiko Kros Txapelketan. DKTko gizonak txapelkun geratu ziren taldeka; besteak beste, Gontzal Murgoitio elorriarrak eta Asier Agirre eta Argoitz Ugalde durangarrek egindako lanari eskerrak.

Bidezabalek beheko mailetan erakutsi zuen bere ahalmena. 18 urtez azpiko nesken taldea txapelkun geratu zen, Laia Ca-

riñanos probako irabazlearen eta beste hainbat taldekideren ekarpenari eskerrak. Esaterako, Ixone Sanchez abadiñarra zazpigarren sailkatu zen. Neskekin jarraituta, 16 urtez azpiko mailan, Maier Miota durangarra txapelkunorde geratu zen. Miota triatloietan aritzen da eta aurten debutatu du krolean. Ordizian, Euskadiko txapelkun geratzeko aukera izan zuen azken esprinter arte. Azkenik, Bidezabaleko mutilen 16 urtez azpiko taldea podiumeko hirugarren postura igo zen, hainbat atletaren lanari eskerrak.



JOKALDIA

GOTZON GOMEZ BARRENETXEA ERRUGBIA

Munduko txapelketa, Euskal Herrian?

Azken asteetan errugbiaren inguruan mugimendu esanguratsua egon dira, horren adibidea Eusko Jaur-laritzak emandako urratsak, 2027. urtean 20 urtez azpiko Munduko Errugbi Txapelketa Euskal Herrian joka dadin. Horretarako Eusko Legebiltzarrean berriki onartu da, aho betez, legez besteko proposamena, non Eusko Jaur-laritzak, Euskadiko Errugbi Federazioarekin berarekin koordinatuta, 2027an Euskadi 20 urtez azpiko Munduko Errugbi Txapelketaren egoitza bihurtzeko beharrezkoak diren kudeaketak eta urratsak egingo dituen.

Horrela gauzatuko balitz, berri itzela litzateke, goi mailako talde ugari izango genituzkeelako gure artean; besteak beste, Zeelanda Berria, Hegoafrika, Australia, Ingalaterra, Argentina, Frantzia, Eskozia, Irlanda, Gales... Dudarik gabe, honek sekulako onurak ekarriko litzateke hainbat esparrutan. Zeintzuk lirateke onura horiek?

Alde batetik, errugbiaren ikusgarritasuna. Halako jardueraren batek komunikabideetan ohikoak ez diren tartekak ekarriko litzateke maite dugun kirolerako. Ziu-rrenik, errugbiari ate asko zabalduko litzateke, partidak zuzenean zein telebistaren bidez ikusteko aukera egongo litzateke, normalean joaten ez diren ikusleak ere bertaratuko lirateke zelaietara.

Ikusle gehiago erakartzeaz gain, halako ikuskizuna aukera paregabea litzateke errugbiaren zabaltze prozesuan. Azken urteetan fitxa kopuruetan gorakada egon bada ere, arduradunen esanetan errugbiak ez du oraindik lortu esperotako zabalkundea, eta aipatutako nazioarteko txapelketa honek lagundu dezake garapen prozesu honetan.

Halako nazioarteko topaketa bat antolatzeak herri mailan ere onurak ekar ditzake. Kirol instalakuntza egokiak ditugu (goi mailako zelaiak), azpiegitura ugari: hotelak zein ostatuak, jatetxeak eta tabernak, garraio

publikoak etab... Ekitaldi hau nazioarteko erakusleihoa izango litzateke, euskal gizarteak eman dezakeena egiaztatze munduari. Era berean, gure herriak duen historia, ohiturak, kultura eta aberastasuna zabaltzeko aukera ezin hobea litzateke. Mundu zabaleko komunikabideek bozgorailu itzela izan daitezke gureak diren arlo horiek ezagutarazteko prozesuan.

Aurretik gogoratu 2026. urteko udaberrian klubaren arteko finalak San Mamesen izango ditugula. Epe laburrean sarrerak salgai jarriko dituzte eta adi egon beharko dugu.

Amaitzeko, eskaera bat besterik ez nuke egingo, agian desira utopikoa besterik ez dena, hoteletako ardura-dunek eta ostalariek zintzotasunez joka dezaten, eta gehiegizko prezio-igoerarik ez ditzaten egin aurrekoan egin zuten bezala, esaera zaharrak dioten bezala zeken-keriak zakua hausten duelako, eta hori gerta daiteke zuhurtziaz jokatzeko ez badute.

KOMIKI TIRA UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

URTARRILAK 17, BARIKUA

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Inuarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

URTARRILAK 18, ZAPATUA

09:00-09:00

De Diego, Inbaurrondo 22. - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

URTARRILAK 19, DOMEKA

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

URTARRILAK 20, ASTELEHENA

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

URTARRILAK 21, MARTITZENA

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

URTARRILAK 22, EGUAZTENA

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

URTARRILAK 23, EGUENA

09:00-09:00

Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK

**GOZATU
GOZOTEGIA**Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com☎ 661 401 400
f Gozatu Gozotegia
@ gozaturgozotegia**Xuban eta Katrin**

Zorionak, Katrin. 12 urte eder egin dozuz urtarrilaren 15ien. Jarraitu hain jator. Zorionak, Xuban. 8 urte egin dozuz 14en, etxeko eskalatzaila. Mosu handi bana, asko maite zaituegu Lurrek, aitak, amak eta familia guztiak.

**Julen eta Naia**

Zorionak, Julen eta Naia lehengusuei, handitzen doazelako. 9. eta 2. urtebetetzeak ospatuko ditugu! Muxu eta besarkada bana etxekoan partez!

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

InternetAnboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidea sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.**Posta elektronikoa**Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.**Ordezkaritzak**

Etorri zaituz Anbotoren ordezkarietara edo deitu 946 232 523 telefonora.

ESKELAK

URTEURRENA

**Agustin Salterain
Azkorbebeitia**

2024ko urtarrilaren 13an hil zan

*Haize hotza kanpuen
eta zure begirada
betirako goguen***Mariasun Landa
Iurretan**

URTARRILAK 23

18:30 Mariasun Landarekin berbaldia

Elkarriketatzaila:
PERU MAGDALENA ARRIAGA
Hizkuntza: Euskaraz
Alduz aurretik izena emandaEkintzetan izena emateko
94 681 27 26
liburubotikakoekintzak@iurreta.eus
WhatsApp edo Telegramen
688 86 37 36

URTARRILAK 31

"TAXIA PARADISURA"
Haurrentzako ipuin-kontalaria
Hizkuntza: euskara
Ordua: 18:00Adina: 4 urtetik gorako haurrak
+ heldu laguntzaileak"TAXIA PARADISURA"
Helduentzako abozko narrazioa
Hizkuntza: euskara
Ordua: 19:00
Kontalaria
MIREIA DELGADO EXPOSITO
Alduz aurretik izena emanda**Iurreta**
Txintxan-Itxaso
48900 IURRETA**hitz**
liburudendaartekalea 23, durango
946 810 776

info@hitzliburudenda.com

2024 URTEKO
LIBURURIK
SALDUENAK



LAU-HORTZA

MERTXE MUGIKA
BALANZATEGI

Handira

"Egunetik egunera euskarak ate gehiago irekitzen dizkidala sentitzen dut. Hemen egotea nire familiari, herriari, lagunei eskertzen diet, hizkuntza hau eman didaten guztiei". Horiek izan ziren Pello Reparazek 2021eko MIN sari banaketan botatako berbak. Aipu horiek erabiltzen ditut neuk nerabeekin hizkuntza gaia lantzen aritzen naizenean. Abeslari nafarra erreferente jarrita, ikusarazten saiatzen naiz posible dela euskaraz eginda arrakasta izatea. Bada, uste dut azkenaldi honetan Zetak taldeak egindako apustuak argi utzi duela euskaraz ere posible dela handira jokatzeko. Horren atzean lan handia dago, eta, batez ere, ideiak oso argi. Zetak taldeko liderrak oso argi dauka zein mezu bidali gura duen sortzen duen ikuskizunaren bidez. Hasieratik bultzatu du bere herria, Arbizun, bizi eta lan egitea. Hasieratik izan du ardatz euskara, baina ahaztu gabe beste hizkuntza txiki batzuk. Nafarroa Arenan egon zirenek nekez ahaztuko dute bertan bizi izandakoa, bertan entzundako mezuak.

Zetak eta Pello Reparazek musika gustuko izan edo ez, euskal kulturaren alde sekulako lana egiten ari da. Mitoaroa ikuskizuna masa fenomeno bilakatzeak gure gazteen artean euskara zabaltzea ekarri ahal du, eta, horregatik bakarrik, merezi du handira jokatzeko!

AKUILUA

"Uste dut Izurtzako azken aguazila izan naizela"

JUAN MARI MURGOITIO AREITIO AGUAZIL OHIA

Juan Mari Murgoitio (Durango, 1959) Izurtzako aguazila izan da 36 urtetik gora, joan zen ekainean jubilatuta zen arte. Herriko lurperatzailea ere izan da urte askoan

Aitziber Basauri IZURTZA

Izurtzako aguazil lez, askotariko lanak egitea egokitu zaio Juan Mari Murgoitiori; beti kalean, herritarrekin hartu-emanetan. "Gurago dut kalean hotza pasatu bulegoan sartuta egon baino", dio. Izurtzan hazi eta lan egin ondoren, orain Mañarian bizi da.

Aguazila ala udaltzaina?

Aguazila. Bonbatxoak ipinita irteten nintzen kalera, traierik barik. Deneriko lanak egitea tokatu zait, gainera. Lurperaketez arduratu naiz, eta ur-zerbitzuaren ordainagiriak kobratzen nituen, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak zerbitzuaren ardura hartu zuen arte. Ura garbi egotea zaindu behar nuen, eta izan zitezkeen matxurak konpondu. Denean zaindu behar zen garbitasuna. Bide eta bide bazterrak garbitzea nire lanaren zati zen, eta, bake epaitegira helduriko jakinarazpen edo abisuak banatzea ere bai.

Isunak ipintzea tokatu zaizu?

Ez, hori ez! (barrez).

Aguazil gutxi dago gaur egun.

Bai. Uste dut neu izan naizela azkena Izurtzan. Garai bateko figura da aguazilarena. Egun osoko lana zen nirea, 24 ordukoa. Mugikorrik ez zegoen garaian,



"LEHEN LURPERATZEA LURREAN EGIN NUEN. ILUNDU EGIN ZUEN, ETA ARGIRIK BARIK AMAITU NUEN LANA"

pertsona-bilagailu batez deitzen zidaten udaletxetik.

Urteotan asko aldatu da zure lana?

Bai. Sasoi batean, baserriren batera uraren ordainagiria kobratzera joaterakoan, etxe barruraino sartzera gonbidatzen zintuzten. Horrelako detaile txikietan igartzen da aldaketa.

Konfiantza maila handiagoa zen, gehiago ezagutzen genuen elkar. Baina leku denetan igarriko da hori. Gizartea aldatu egin da.

Maitatua sentitu zara?

Bai. Urte asko izan dira, gainera. Adinekoei enkarguak egin dizkiet, farmaziatik botikaren bat ekarri, adibidez. Eta inori bisitak ere egin dizkiot, bakarrik bizi dela jakinda. Nire lanaren zati lez hartu ditut horrelakoak. Herri txikietan dena jakiten da.

Baduzu anekdotarik gogoan?

Behin, udaleko autoa lapurtu zidaten. Giltzak ipinita utzi nituen. Orduan alkate zen Juan Mari Alberdik ibilgailua ikusi zuen, eta atzetik joan zen. Lapurra konturatu zen kotxe bat zuela atzetik. Ba, gelditu, giltzak bota eta ihes egin zuen. Konturatu ere ez nintzen egin, alkateak esan zidan arte. Oizen hegazkin istripua izan zen eguna ere go-goan dut.

Herriko lurperatzailea ere izan zara.

Zelako lana da?

Gogorra. Askotan ezaguna izan da hildakoa, eta senitartekoak. Alde horretatik da gogorra. Ofizio desberdin bi dira, baina bateratu egin ziren. Herri txiki batean lurperatzaileak ez du lan askorik izaten, baina lan hori egin beharra dago. Kanposantua zaintzeaz ere arduratzen nintzen. Lehenengo lurperatzea lurrean egin nuen. Gainera, ilundu egin zitzaidan eta argirik barik amaitu nuen lana. Gainerakoak panteoian lurperatu ditut.

Herriko jaiak dira lanik gehien eskatzen duten egunak?

Bai. Musika ekipoak eta eszenatokiak muntatu eta desmuntatu behar dira. Askotan lehenengo izaten nintzen heltzen, eta azkena alde egiten.

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA




Smurfit Westrock